

1959

KapitaneneKO

Asterix, Obelix eta Barbie, hirurak gure kintakoak dira eta guk bezala berrogeita hamar urte bete zituzten iaz. Lehen automobil Minia errepideetara atera zen urtean jaiotakoak gure mende erdia ospatu genuen 2009. urtean.

Uka ezina da: urte berezia izan zen 1959. hura, hemerrotekara eta historia liburuetara jotzea besterik ez dago horretaz jabetzeko. Alabergako auzoa inauguratu zen urtean jaiotako Errenteriarrok gure historiaren seme-alabak garela erakusteko –agian–, gure mende erdia bitan berezita ospatzea erabaki genuen. Bat bitan banatzen da, hori da dialektikaren printzipioa eta zatiketaren oinarria. Horrela, 1959ko haurride batzuk Lintzirinen eta beste batzuk Egiluzen, urriaren 31n, egun berean eta ordu berdinean elkartu ginen. Eta ez guztiok, Asterix-ek bazkari batera eta Barbie-k bestera joatea erabaki baitzuten, eta Obelix-ek, ulertu ezinik banaketa, etxean basurde erreak janez lasai geratzeko hautua egin baitzuen.

Errenteriarren hazkundearekin batera jaiotakoak gara. Urtebetea genuenean gure herriak hogeita mila biztanle inguru bazituen, gure hemezortzi urterekin –orduan adin nagusitasuna 21ean zegoen– Errenteriak inoiz izan duen populaziorik handiena bildu zuen: ia 48.000 gizon-emakume, egun baino bederatzita mila biztanle gehiago. Ordenarik gabe hazi zen Errenteria, haurtzaro eta gaztaroan eraikitzen ikusi ditugu auzo eta auzoak: Pontika, Agustinak, Galtzaraborda goikoa, Igantzi, Kaputxinoak, Olibet, Beraun. Eta zer esanik ez helduaroan garatu diren Fanderia, Esmalteriako plaza, Lanera eta Pekin inguruak.


Ez ditugu ezagutu gure lehenagokoek ezagutu zituzten beharrak eta eskasiak. Hark zioen moduan, pentsue-

kin hazitakoak gara, aisa janez, papilaren eta Pelargon-aren belaunaldikoak gara, baina ez oraindik potitoekin hazitakoak. Gure fardelak oihaletzekoak ziren, oso ekologikoak beraz, baina gure amek behin eta berriro garbitu beharrekoak.

Etxeetan jaiotako azkenekoetakoak gara, Donostiako Ama-haurrentzako ospitalea zabaldu gabe zen oraindik, hala ere 1959an Errenterian jaiotako gehienek erditzeak Donostiako ospitaleetan izan ziren. Ugariak ginen, ume eta gazte ginen garaietan haur asko ginen herrian, baby-boomaren barrukoak gara, nahiz honen gailurra bospasei urte geroago gertatu.

Ez ginen jaiotakoak errazetan, baldin eta balego munduan urte errazik. 1959a “estabilizazio planaren” urtea da. Autarkiatik, gerra osteko merkatu itxietatik irteteko eta desarrollismorako atea zabaldu zuen txokeko plana ezarri zen urtea, alegia. Ez ziren izan garai errazak gure gurasoentzat, Errenterian bizi edo gure herrira orduantxe bizitzera etorri zirenentzat. Belaunaldi honetako guretako asko, ez gehienak, Errenteriatik urruti jaiotakoak dira.





Hemen jaio ala umetan Erreteriarra etorritakoak izan, gure belaunaldiko haurrideok beste Erreterria bat ezagutu genuen. Gure haurtzaroan "gaileroak" herrikoentzako izengoitia arrazoizkoa zen artean, zuzena zen moduan "Manchester txikia" ezizena, fabrika ugariz betetako herria baitzen oraindik Erreterria. Zaharrena, Fabrika handia zen. Xenpelar langile izan zuen "Tejidos de Lino" fabrikak zutik eta lanean zirauen, lantegiaren baitan zen "Corazonisten" zumardi ondoko eskola zaharrean "párvulos eta preparatorio" egin genuenok baieztatu dezakegunez. Matxingo lur muturrean beruna eta zinka galdatzen ziren Asturiana de Minas labeetan. Lanean azkenekoetan ziren Biteri eta Juan de Olazabal kaleen artean kokatutako fundizio handiak, zutik zen Fabril Lanera eta hari atxikitako Tintoreria, Esmalteria, Niessen, Paisa, Echeverria & Cia -Pekin-, Manta fabrika,

duzue bost urte genuenean "su Excremencia" k inauguratu zuela Papresaren egungo eraikin nagusia? Fabrika horietako gehienak hamar urte beranduago erauzita eta etxe sailak bilakatu ziren, eta zutik zirenak ixtear.

Jaio ginenean ez zen telebistarik gure etxeetan. Oroitzean dugu "kutxa leloa" etxean sartu zen eguna. Eta irratigailuak oraindik aldaretxoan igota ezagutu genituen. Lanparetako irratigailu handiak, transistore aurrekoak, telebista etxeetan sartu aurreko hedabideak, eta "Radio París", BBC, "Radio Pirenaica", Francoren zentsura saihesteko aukera ematen zuten gailu zaharrak.

Hozkailua ez zen etxe guztietan, eta gure amek hornigaiak ia egunero erostera behartuta zeuden. Ez genuen ezagutu Foru plazako azoka zaharra, garai hartan bota baitzuten, aldiz, egun "Merkartuzar" izena duen kultur eraikinak gu jaio eta hurrengo urtean zabaldu zituen ateak udal azoka gisa.

Etxean, ikatzetik gaserako jauzia ezagutu genuen. Sukaldean txapak, egurra eta ikatza erretzen zituen sukalde ekonomikoak bere tokia utzi zion butanoko suari. Txapaz aparte, etxeetan ez zen bestelako berogailurik, hark berotzen zuen sukaldea eta bertan egiten zen bizitza. Ekonomikak kendu zirenean butano berogailuak eta elektrikoak etorri ziren. Ordurako, telebista zela medio, jangelak hartu zuen etxearen nagusigoa, telebistaren inguruan hasi baitzen familia elkartzen.





Haur ginenean ikuzgailua ez zen etxe guzietan, ikusia dugu ama eta amona lixiba egiten eskuz, arropa etxeko arraskan eta garbitzeko oholaren gainean joz, eta ondoren sokatan zabalduz lehertzeko leiho eta balkoitako hedagietan. Gaztainon eta Alabergan arropa zabaltzeko sokak mendian zeuden eta gogoan ditugu bi auzo horietan etxeetako artilezko lastairak harrotzetik ogibidea ateratzen zuten andrazkoak.

Trolebusean ibilitakoak gara, Erreterria eta Donostia lotzen zituzten pisu bakarreko eta bi pisutako trolebusetan. Donostia-Erreterria tranbiaren azken aztarnak, argi indarrez mugitzen ziren eta egun ibilgailu ekologikotzat joko genituen horiek nagusi izan ziren ibilbide horretan, orduko modernitatearen aurrean –gasoliozko autobusen aurrean– amore eman behar izan zuten arte. Urte luzez, trolebusak Alamedan egiten zuen norabide aldaketa, eta aldi bakoitzean errepide nagusia zen Nafarroa hiribidea moztu behar zen: trolebusa errepidean gurutzatu, atzeraka jo Biteri kaletik, jaitsi “trolea”, –argindarra katenariatik hartzeko bi pertxak–, aldatu hauek beste norabideko katenariara eta “voila” bus elektriko hura prest zen Donostiara joateko.

Automobilak gu haztearekin batera bilakatu ziren plaga, herriko azken txokoa hartu arte. Jaio ginenerako errepide nagusiak Erreterria bitan zatitzen zuen, erdi erditik. Kale guziak zeuden zabalik trafikora, oinezkoentzako guneak urriak ziren, erdialde osoan hiruzpalau plaza: Alameda, Foru Plaza eta egin berria zen Diputazio plaza. Eta hala ere kalekumeak gara, kalean eta plaza gutxi horietan jolas egindakoak. Kalea bizi izan dugu, hori izan zen gure jolaserako eta harremanetarako esparrua. Orduak eta orduak eman ditugu geure kasa, ume aldratan, hortik jolasean.

Eta gutako batzuk kale horietan euskaraz jolas egindakoak gara. Frankismoaren ondorioz,

euskarak atzerakada bizi zuen Euskal Herrian gu jaio ginean. Erreterria, herri oso euskalduna izandakoa, ez zen atzerakada horretatik salbu. Emigrazio handiko garaia eta gainera familia baitako hizkuntza transmisioa ukitua zen. Gure belaunaldian artean euskarak galerak zituen familia-transmisioan, nahiz bi gurasoak euskaldunak izan. Honi gehitu behar zitzaion eskolaren eta kaleko erdal giroaren eragina eta horrela uler daiteke gaztelania eskolan ikasitako ume batzuek euskara

ahuldurik eta guztiz kamutsa izatea hamar urterekin. Hau egia izanda, gure belaunaldiarekin euskarak aurrera egin zuen. Gure kintakoa da Orereta ikastolaren lehen kurtsoa, eta familia euskaldunetan jaio ala ez, ikastolan ala gaztelaniazko eskoletan –gehienok– ikasi, gau eskola eta euskaltegiei esker, guretakoan artean euskarak hitzunak irabazi ditu. Eta era batera edo bestera, salbuespenak salbuespen, gehienok pasa diogu gure hizkuntza hurrengo belaunaldiari.

Xamako errekan oinak bustietakoak gara. Santa Klara kalearen eta Santa Klara plazaren artean, ferratoki zaharraren eta Matxain etxearen horma tartean pasatzen zen liho lantegiko ubidea eta honen gaineko zubia ezagutu genuen, ur erreka hura hodietan sartu aurretik. Eta zer esanik ez, Patxikuko zelaia, hilerri zaharraren, On-Bide zinemaren eta Santa Klara kaleko etxeen atzean zabaltzen zen lursaila, jolasetarako eta San Joan sutarako toki benetan aproposa. Han, 1973ko San Joan gauean suertatu zen milagro txiki hura, Manolo Escobarren emanaldiak iragartzen zituzten kartelak sugarretatik salbatu ziren eta beste batzuk txapel okerren etxetik, Madalena 27tik, pasatzetik libratu ziren gaueko milagrotxoak.

Belaunaldi horretako mutikook gure “puente peli” izan genuen eta izateagatik bi eta guzti izan genituen, biak ala biak Arditurriko trenbide zaharrea. Bederatzi bat urte genituenean itxi zuten Aiako Harriko meategien eta Sorgintxuloko zamatzeko tokien arteko burdinbidea. Garraiorako itxi zuten, baina guri abenturetarako pista zabaldu ziguten. “Peligroso” adjektiboari izana ematen zion zubia Arangurenen zegoen, gaur egungo autopista ondoko bidegorriko oinezkoen zubiaren ondoan kokatua. Bestea Pontikan zen, Arramendiko bidearen gaineko trenbide zubia, laburragoa eta ez hain garaia.

Donostiako eta Hondarribiko hondartzak izan ziren gure igerilekuak, baina bagenituen beste-lakoak ere. Juantsondoko presan, Oiartzun ibaian eta Alaburtzako golkoan, Donibane aldeko Pasaia bokalean igeri egindakoak gara; haurride artean, gurasorik gabe. Hondartza haurtzarotik aurrera eta koskorragoak ginenean eta geure kasa ibiltzeko autonomia irabazi genuenean, aipatutako eskapadak, eta San Markos gotorlekura zein Aizpitarteko haitzuloetarako txangoak, Jaizkibelekoak, istripu penagarriak barne, izan genituen nerabe aroan udarako aisia aukerak.

Baina, neguan ala udaran eta oso txikitatik eta gizon eta emakume egin ginen arte, zinema izan genuen asteburu oroko laguna. Sarrerak gaur egun baino dezente merkeagoak izan eta igandero-igandero pelikulak eta pelikulak ikusiak gara, Errenteriako zinema aretoetan. Ofizialetan eta bes-telakoetan, umeentzako behin-behineko zinemetan.

Umeentzako behin-behineko zinemen artean Don Bosco ikastegikoa aipatu behar eta honekin bere azkenekotan ezagutu genuen "Los Luises" en aretoa. Reina zinemaren ondoan zen eta ume-entzako zinea eskaintzen zuen areto zahar hura ezagutu genuen azkenekoetakoak gu gara. Han ikusi genituen abenturarako hainbat pelikula, nahiz ez lortu inoiz "Murieron con las botas puestas" ikustea. Bai pena, "Los Luisetan" benetako abentura pantailan bezainbeste kanpoan baitzegoen, zine interaktiboa zen, pantailan zalditeriakoak ateratzen zirenean ikusleok ere, egurrezko aulkiak zaldi gisa hartuta, trostan egiten baikenuen.

Reina, On-Bide, Alameda. Errenteriako hiru zinema ofizialak, bakoitzak bere espezializazioarekin. "Salón Cine Reina Victoria Eugenia" zuen izen osoa, guretzat "Zine Reinak" saio ugari eskaintzen zituen, eta ugaritasun horrek publiko desberdinetara jotzeko aukera ematen zuen. Hasi umeentzako saioetatik, igande arratsaldeko hiru eta erdietan umeentzat ematen zen emankizunetik –bide batez, zein garaiz egiten ziren haurtzaroko igandetako familia bazkariak–, segi 17:30eko saioarekin, hori artean ume eta gazteentzat zen. Ondoren 19:30ekoa zetorren, hau jada hamalau urte gorakoentzat zen eta zer esanik ez gauekoa, hor gehienetan hemezortzi urte behar ziren, ala itxurak egin, sartzeko. Antzekoa gertatzen zen Batzokiaren ekitaldi aretoa hartzen zuen Alameda zineman, hau ere helduentzat zen. Eta azkenik On-Bide zinema, honen arrakastaren lekukoa: jakin gabe ere, On-Biderako bidea erraz aurki zitekeen erdiko kaletik eta zinearen ateraino lurrean asfaltoan itsatsitako txikleak markatzen zuen arrastoa segituz.

Pipitak, txikleak, eta makilgoxo edo erregalitzak izan ziren gure litxarreriak eta hauek erosteko jo genezakeen Alameda txikian kokatzen ziren karroetara eta hauek kendu zituztenean dendetara: Biteri kalean zen Marujara, Biteri txikiko Pakira, Alameda txikiko dendatxora, Reina zinema ondoko Aduriz okindegira edo Herriko plazako Parisera.

Zinemarekin batera, mahai futbola –futbolina, alegia–, pinball makinak –guretzat "petacoak"–, eta billarra izan genituen jolas bide, eta horretarako bi geltoki nagusi: Andre Mari kaleko Mariaren bolatoki eta topoko aldapan zen billar areto handia.

Eta nerabazarora eta gaztarora iritsita, neskek eta mutilak, mutilak eta neskek. Institutuan eta Orereta ikastolan ikasi zutenak salbu, neskek eta mutilak bereizten zituzten eskoletan hezi eta hazitakoak gara, bi mundu urrunetan eta horrek gure hartu-emanetarako eragina izan zuen. Tontodromoa izenarekin bataiatu genuen ibilbidea izan zen ondorioetako bat. Ibilbide zirkular horrek Foru plazatik pasata Biteri txikitik Alamedara eta hortik Herriko plazara, eta Madalen kaletik hartuta berriro Foru plaza lotzen zuen. Zenbat ordu





ez ote ditugu eman zelatan eserita "portavionesan", edo alde batera eta bestera zirkuitua eginez. Horrela neskek eta mutilak elkar ikusten genuen, "agur, gero arte" –ia guztietan erdaraz–, eta irrien eta ez zirrien artean, ikusi eta elkarrekin gustatzeko bidea jorratzen genuen, tonteatzeko aukera eskaintzen zigun, alegia. Eta horrela joan-etorri eta paseo horietan hainbat ezagutza bideratu ziren.

Eta "tontodromotik" hurrengo pausua: dantzaldiak. Erreterriako Alamedako dantzaldiak fama handia zuen gu haur ginen garaietan. Bistaz ikusia dugu Musika banda Alamedako kiosko zaharrean bere emanaldia eskaintzen eta plazan aterkiak dantzan, neska mutilak "dultze meneoan" euripean aterkien estalpean eta zumardiko tabernak eta terrazak jendeaz gainezka. Gure nerabezarorako giro hori guztiz amaitua zen, Musika bandaren igandeetako azken dantzaldiaren testigu izan ginen, kioskoan bandak jotzen eta plazan inor ez dantzan, gu bezalako lau ume hura ikusten, itxaropentsu handik laster dantzaldiak musika taldeek eskainiko zituztelako esperoan. Eta horrela ez zen derrigorrez izango Oiartzuna joan behar, Udaletxearen arkupeetan Oroitzak taldearen erritmoan dantzatzeko. Musika bandaren azken dantzalditik gutxira, eta urteetan, Alamedan dantzaldiak izan ziren musika taldeekin. Dantzaldirako soinu banda jarriz, demagun Plakton taldea kioskoan, pieza hasten zenean neskek binaka dantzan, baita mutilak binaka ere hurbildu, dantza eskatu –¿bailas?– eta baiezkoa bazen erantzuna, dantzatzera Lertxundiren "loretxo" edota Santanaren "Europa", eta suerte pixka batekin hurrengo eta hurrengo. Erantzuna ezezkoa bazen, hurrengo piezaraino itxaron behar edo gustatzen zitzaizunaren aldetik pare bat kalabaza jaso ondoren, edo neska izanda

zuk nahi zenuenak dantza eskatu ezean, lagunekin bueltak ematera edota inguruko tabernetara jo behar basoerdiak hartzera. Orduan, alkoholaren kontuak beste modukoak baitziren.

Bitxia bada ere, elizak eskaini zigun gure belaunaldiko neska-mutilei hurbilago eta intimitatean dantzatzeko aukera eta hori gutxi balitz, orduan puri-purian zeuden musika taldeek jotako dantzaldietan. Hura zen mauka! Iztieta elizaren sotoan gertatzen zen hori, Esnatu-Kezka gazte elkartearen lokaletan eta gazte elkarte bi horiek elkarrekin urtean bitan, Gabonetan eta Pazkoko oporetan, antolatzen zituzten dantzaldietan.

Ondoko kalean, Iztieta Donostia kalean, zeuden garai hartako bi diskoteka nagusiak: Penny Lane eta Apolo, izenagatik bakarrik ikusi daiteke biak hirurogeita hamarrek hamarkadaren hasieran zabaldu zirela, eta gure nerabezaroan eta gaztarroan bere goienean ziren. Ez zuen horrenbesteko arrakasta izan Cerebro's, Urola kaleko diskotekak. Eta Bingen, Alameda txikiaren izkinan kokatutako "boitea", helduagoentzat izan zen dantzarki moduan egon zen bitartean, ondoren gure belaunaldikook jarri izan genuen espektakulua, "espektakuludun edaritegia" –azkena ixten zuen edaritegia– izan zen garaietan.

Beatles-en Penny Lane izeneko diskotekako emanaldiak ixten zituen abestia bera entzunez, horrelako geografia eta horrelako historiak etorri zaizkit gogora. Guztiz aldatutako geografia, nahiz Erreterriakoa izan. Historia horiek Erreterriako Asterix, Obelix eta Barbieren kintakoek ezagutu eta bizi izan ditugun garaiak dira. Joan ziren garaietakoak, baina guregan, bizi garen eta oroitza dugun bitartean, biziko direnak.